Nolanahi ere, kontratistak faktura, faktura elektronikoaren gainean indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzen arabera, dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar eguneko epea betetzen ez badu, interesen sortzapena ez da hasiko, harik eta faktura behar den moduan aurkezten den egunetik hogeita hamar egun pasatu arte, administrazioak adostasuna onartu barik eta, hala badagokio, dagokion ordainketa egin barik

Azken finean, indarrean dagoen legeriak faktura bat izapidetzeko bialdi bereizten ditu, 30 egun faktura egiten den egunetik onesten den arte, eta beste 30 egun onesten denetik ordaindu arte, SPKLn eta aplikatuko den gainerako araudian jasotakoaren arabera.

ORDAINTZEKO EPEAK BETETZEA

Leioako Udalak, bere aldetik, jakin badaki enpresa-ehunarentzat oso-oso garrantzitsua dela ordaintzeko epeak laburtzea, batez ere, krisialdian, eta ahalik eta gehien murrizteko mekanismoa sortzeko ahalegina egiten du une oro.

Hain zuzen ere, horixe da 2012. urtean abiarazitako prozesuen helburua: udal-kontabilitatea digitalizatzea, fakturen erregistro bakarra sortzea edo tokiko hornitzaileekin bitarteko elektronikoen bitartez harremanetan egotea (hileko ordainketetarako, fakturak hartzeko eta abarrerako kontzeptuetarako komunikazioa).

Horren adibide dira 2013. urtetik 2018. urtera (biak barne) lortutako datuak; izan ere, Ekonomia Arloak eta gastua kudeatzeko arloek, fakturak ikus-onesteko arduradunak, elkarrekin egindako lanaren emaitza da.

2013. urtean, ekitaldian ordaindutako 5.448 fakturetatik, 19.036.641,16 euroko zenbatekoarekin, 4.968 faktura, % 90,46, epe barruan ordaindu ziren.

2014. urtean, ekitaldian ordaindutako 5.691 fakturetatik, 18.872.988,88 euroko zenbatekoarekin, 5.433 faktura, % 95,47, epe barruan ordaindu ziren.

2015. urtean, ekitaldian ordaindutako 5.641 fakturetatik, 18.784.892,57 euroko zenbatekoarekin, 5.397 faktura, % 93,88, epe barruan ordaindu ziren.

2016. urtean, ekitaldian ordaindutako 6.270 fakturetatik, 17.865.402,57 euroko zenbatekoarekin, 6.152 faktura, % 98,11, epe barruan ordaindu ziren.

2017. urtean, ekitaldian ordaindutako 5.961 fakturetatik, 18.010.162,53 euroko zenbatekoarekin, 5.824 faktura, % 96,62, epe barruan ordaindu ziren.

2018. urtean, ekitaldian ordaindutako 6.144 fakturretatik, 18.633.683,79 euroko zenbatekoarekin, 5.822 faktura, % 94,75, epe barruan ordaindu ziren.

2019. urtean:

Hori kontuan izanda, eta 2019ko LEHENENGO HIRUHILEKOA aintzat hartuta (urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra), hauxe da laburpena:

- 6.326.555,82 euro batzen dituzten 1.691 fakturretatik epe barruan 4.832.888,41 euro ordaindu dira (1.443 faktura), hau da, faktura guztien % 76,39.
- Epez kanpo ordaindutako 248 fakturretatik (zenbatekoaren % 23,61), honako hauen egoera nabarmendu behar da:
 - Faktura horietako 76ri (1.440.290,38 euro) onespena epez kanpo eman zitzaien eta, beraz, arlo ekonomikoan legearen arabera finkatutako epetik kanpo jaso ziren, hau da, hiruhilekoko faktura guztien % 22,77.

BATEZ BESTEKO ORDAINKETA-ALDIA (OBBA)

Aipatutako Sektore publikoko merkataritza-zorraren kontrolari buruzko abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoaren bitartez, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epearen kontrola indartzen da sektore publikoko merkataritza-zorra kontrolatzeko baliabide gisa. Horrela, finantza-zorra kontrolatzearekin batera, bermatu egingo da administrazio publikoetako jarduketak eraendu behar dituzten aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak betetzen direla. Era horretan, gehiegizko defizit publikoa murriztea lortuko da.

Legeak ordaintzeko batez besteko epea hartzen du barne, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak gida bat argitaratu ostean, ordainketak egiteko behar izan diren egunak edo batez besteko epearen adierazlea da. Batezbesteko haztatu gisa lortuko da, era honetan:

- a) Hiruhilekoaren barruan ordaindutako eragiketa bakoitzeko, eragiketaren zenbatekoari dagokion ordainketa-aldiaren egun-kopuruaren” produktua egingo da.
- b) Aurreko apartatuko produktu guztiak gehituko dira.
- c) Hiruhilekoan ordaindutako eragiketen zenbateko guztiak gehituko dira.
- d) Hiruhilekoan egindako “ordaintzeko batez besteko epea” lortzeko, b) eta c) letretan kalkulaturako zenbatekoen koefizientea izango da.

Epeen kopuruari dagokionez, Administrazio publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia garatzen duen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretua aldatzen duen abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuan —artikulu bakarra— xedatutakoa bete beharko da. Hain zuzen ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuaren 5. artikulua aldaketa izan ezik, zeina 2018ko apirilaren 1ean sartuko da indarrean, xedapen iragankor bakarrean xedatutakoarekin bat etorriz. Hauxe jaso da bertan:

Ordaintzeko egun kopurua izango dira hemendik aurrera igarotako egutegiko egunak:

- a) Obra-ziurtagiriak onesten diren eguna, administrazioak ordainketa materiala egin arte.

b) Emandako ondasunak edo zerbitzuak onesten dituzten dokumentuak onesteko eguna, administrazioak ordainketa materiala egin arte.

c) Faktura administrazio-erregistroan sartu den data, fakturen kontabilitate-erregistroan edo sistema baliokide batean jasotzen denaren arabera, administrazioaren aldetik ordainketa materiala egiten den datara arte, ondasunak edo emandako zerbitzuak onartzeko edo egiaztatzeko prozedura bat aplikatzeko ez den kasuetan edo faktura-adostasuna onetsi ondoren jasotzen bada.

ORDAINDUTAKO FAKTUREN RATIOA = $\frac{\text{ordainketa-egunen kopuruaren batura} * \text{ordaindutako eragiketaren zenbatekoa}}{\text{Egindako ordainketen zenbatekoa, guztira}}$

ORDAINTZEKE DAUDEN FAKTUREN RATIOA = $\frac{\text{ordaintzeke dauden egunen kopuruaren batura} * \text{egiteke dagoen eragiketaren zenbatekoa}}{\text{Egiteke dauden ordainketen zenbatekoa, guztira}}$

ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA = $\frac{\text{Ordaindutakoen ratioa} * \text{ordaindutakoen zenbatekoa} + \text{ordaintzeke daudenen ratio} * \text{ordaintzeke dauden zenbatekoak}}{\text{Egindako ordainketen zenbatekoa} + \text{egiteke dauden ordainketen zenbatekoa}}$

UDALA

a) Ordaintzeko batez besteko aldia

Kontuan izanda 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritakoa, faktura onesten denetik egiten den egutegiko egunen batura da. Hauexek dira datuak:

Ordaindutako eragiketen_OBBA = $167.814.192,13 / 6.326.555,82 = 26,52$ egun

Ordaintzeke dauden eragiketen_OBBA = $850.779,68 / 51.380,93 = 16,55$ egun

OBBA = $168.664.971,81 / 6.377.936,75 = 26,44$ egun

b) 4/2013 Errege Lege-dekretuan ezarritako epeak betetzea

	EPEAN	EPEZ KANPO		
	Epean	Epez kanpo	<i>Epez kanpoko ordainketa</i>	Epez kanpo onetsitakoak
Faktura-kopurua	1.443	248	76	172
Zenbatekoa:	4.832.888,41		1.440.290,38	53.377,03
Ehunekoa	% 76,39	% 23,61	% 22,77	% 0,84

c) Egindako ordainketen organo kudeatzailearen xehetasunak

	Zenbatekoa	Faktura-kop.	Epe barruan	Epez kanpo onetsitakoak	Epez kanpo ordainduta
GOBERNU-ORGANOAK	48.002,83 €.	23	% 75,74	% 24,26	% 0,00
EKONOMIA-ARLOA	114.810,67 €.	53	% 85,34	% 14,53	% 0,12
ARLO JURIDIKOA	23.947,02 €.	62	% 97,82	% 0,00	% 2,18

SEGURTASUN-ARLOA	60.698,38 €.	49	% 97,81	% 0,00	% 2,19
HEZKUNTZA ENPLEGUA	191.486,41 €.	99	% 94,44	% 2,21	% 3,36
GIZARTE-ONGIZATEA	417.812,89 €.	139	% 80,82	% 18,04	% 1,14
HIRIGINTZA-ARLOA	4.310.177,17 €.	608	% 70,79	% 28,42	% 0,78
KULTURA-ARLOA	410.957,88 €.	336	% 95,00	% 4,07	% 0,93
KIROL-ARLOA	535.077,42 €.	143	% 83,72	% 15,80	% 0,48
ZERBITZU OROKORRAK	213.585,15 €.	179	% 97,14	% 4,32	% 0,00
GUZTIRA	6.326.555,82 €.	1.691	% 76,39	% 22,77	% 0,84

OOAA EUSKARAREN ERAKUNDEA

a) Ordaintzeko batez besteko aldia

Kontuan izanda 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritakoa, faktura onesten denetik egiten den egutegiko egunen batura da. Hauexek dira datuak:

$$\text{Ordaindutako eragiketen_OBBA} = 309.649,55 / 34.608,92 = 8,94 \text{ egun}$$

$$\text{Ordaintzeke dauden eragiketen_OBBA} = 20.295,27 / 1.297,21 = 15,64 \text{ egun}$$

$$\text{OBBA} = 329.944,82 / 35.906,03 = 9,18 \text{ egun}$$

b) 4/2013 Errege Lege-dekretuan ezarritako epeak betetzea

	EPEAN	EPEZ KANPO		
	Epean	Epez kanpo	<i>Epez kanpoko ordainketa</i>	Epez kanpo onetsitakoak
Faktura-kopurua	50	1	0	1
Zenbatekoa:	34.168,82	440,00	0	440
Ehunekoa	% 98,72	% 1,28	% 0,00	% 1,28

OOAA SOINU ATADIA

c) Ordaintzeko batez besteko aldia

Kontuan izanda 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritakoa, faktura onesten denetik egiten den egutegiko egunen batura da. Hauexek dira datuak:

$$\text{Ordaindutako eragiketen_OBBA} = 1.057.925,83 / 84.267,17 = 12,55 \text{ egun}$$

$$\text{Ordaintzeke dauden eragiketen_OBBA} = 10.363,96 / 3.915,09 = 2,77 \text{ egun}$$

$$\text{OBBA} = 1.068.789,79 / 88.182,26 = 12,12 \text{ egun}$$

d) 4/2013 Errege Lege-dekretuan ezarritako epeak betetzea

	EPEAN	EPEZ KANPO		
	Epean	Epez kanpo	<i>Epez kanpoko ordainketa</i>	Epez kanpo onetsitakoak
Faktura-kopurua	92	5	0	5
Zenbatekoa:	81.721,11	2.546,06	0,00	2.546,06
Ehunekoak	% 96,97	% 3,03	% 0,00	% 3,03

OBBA BATERATUA

Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazitako bigarren hiruhilekoari lotuta finkatutako ordainketa orokorraren batezbesteko epea (Udala_8,42 egun, Soinu Atadia_12,12 egun eta Euskararen Erakundea_9,18 egun), finantza tutoretza egikaritzen duen organoa izanik, 8,48 eguneko da.

Amaitzeko, adierazi behar da abenduaren 30eko Tokiko Arrazionaltasunari eta Jasangarritasunari buruzko Legean (312. BOE), OBBA adierazlea aurrekontu-egonkortasunaren helburuaren eta zor publikoaren maila berean jarri da, eta araudi horren arabera ezinbesteko betekizuna da hiru kontzeptuak betetzea aldi baterako langileen eta kargu publikoen, hautetsien, ekonomia- eta finantza-planen, udalerraren barruko lurralde-entitateak irauteko eta abarren zenbait onura jasotzeko.

Horrenbestez, aintzat hartuta Administrazio publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia, bai eta apirilaren 27ko aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako finantzaketa-araubideen baliabideak atxikitze baldintzak eta prozedurak ere garatzen dituen abenduaren 22ko 635/2014 Errege Dekretua, uztailaren 25eko 1040/2017 Errege Dekretua aldatzen duena. Uztailaren 25eko errege-dekretu horrek

FAKTURAK ESKATZEA

Sailetan onetsi gabe 30 egun baino gehiago daramatzaten fakturak eskatzeari dagokionez, legeak horretara behartzen baitu, jakinarazi behar dugu 2019/03/31n ez dagoela udaleko Kontu-hartzailetzak bideratutako informazio-errekerimenduaren ostean erantzunik jaso ez duen fakturarik.

Hirigintza (6), Kirola (1) eta Zerbitzu Orokorrak (4) arloetan onesteke dauden eta kontabilitatean erregistratuta dauden 11 fakturetatik, 10 dagoeneko ordaindu dira edo ordaintzeko prozeduran daude.

-

- Giza Baliabideen Saila fakturetako bat egiaztatzen ari da.

Epe barruan izapidetu ez diren faktura guztien xehetasunak dituen zerrenda erantsi zaio txostenari.

AURREKONTUA BETEARAZTEA

Udaletik batutako datuak, kapituluaren mailan (arrunta, gerakinik gabe), 2019-03-31n, honako hauek dira:

DIRU-SARRERAK

KAPITULUAK	HASIERAKO AURREIKUSPENA	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENA	AITORTUTAKO ESKUBIDE LIKIDOAK
1.- Zuzeneko zergak	8.419.010,19	8.419.010,19	6.660.598,12
2.- Zeharkako zergak	550.000,00	550.000,00	800.794,58
3.- Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	4.558.983,71	4.558.983,71	1.439.558,26
4.- Transferentzia arruntak	22.088.602,78	22.088.602,78	21.371.122,73
5.- Ondare-sarrerak	38.012,00	38.012,00	24.596,66
6.- Inbertsioak besterentzea	1.096.901,01	1.096.901,01	39.227,85
7.- Kapital-transferentziak	1.366.137,95	1.366.137,95	25.723,13
8.- Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	38.117.647,64	44.531.542,77	30.361.621,31

GASTUAK:

KAPITULUAK	HASIERAKO KREDITUA	BEHIN BETIKO KREDITUA	AITORTUTAKO BETEBEHARRAK
1.- Langileria gastuak	10.889.805,22	10.889.805,22	1.915.801,39
2.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak	18.451.100,28	18.451.100,28	2.882.234,48
3.- Finantza-gastuak	5.000,00	5.000,00	787,74
4.- Transferentzia arruntak	3.914.840,81	3.914.840,81	2.145.164,60
5.- Kreditu orokorra eta ustekabeak	91.765,08	91.765,08	0,00
6.- Inbertsio errealak	4.665.136,25	4.665.136,25	86.077,04
7.- Kapital-transferentziak	100.000,00	100.000,00	0,00
8.- Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	38.117.647,64	38.117.647,64	7.030.065,25

Entitatearen aurrekontu orokorrarekin batera eranskin gisa onetsitako betearazteko arauaren 19. oinarrian (Informazioa) xedatutakoarekin bat etorritz, tokiko entitateko alkate-udalburuak ekitaldian igarotako aldiari dagokion finantza- eta aurrekontu-informazioa helaraziko dio Osoko Bilkurari, eta Osoko Bilkurak zehazten duen egiturarekin egingo du.

- Diru-sarreraren aurrekontua, partida-mailan eta kapitulukako laburpena.
- Gastuen aurrekontua, partiden, kostu-zentroen eta arloen mailan.
- Zenbaketa -akta

Aurrekoa betetze aldera, erantsi egin dira Leioako Udaleko eta erakunde autonomoetako kontabilitate kudeatzeko aplikazio informatikoan 2019/03/31n lortutako zerrendak.

Bizkaiko Foru Aldundiari bidalitako informazio ekonomikoaren eta aurrekontu informazioaren bidalketatik ondoriotatzen denez, ordaintzeko batezbesteko aldiari eta hiruhileko informazioari dagokionez, Leioako Udalak 2019ko lehenengo hiruhilekoan legez ezarritako aurrekontuko egonkortasunaren eta gastu arauaren helburuak bete ditu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6.- 2018. URTEKO FISKALIZAZIO TXOSTENA:

Aintzat hartu da 39. zenbakidun irizpena, 2019ko apirilaren 30eko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian hartutakoa, (horren ziuertagiria espedientean jaso da).

Kontu-hartzailetzaren txostena ikusi da, 2018. urteari dagokion urteko fiskalizazioari buruzkoa. Hauxe zehaztu da bertan:

Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko legea

Abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa (BOEn argitaratua 2013ko abenduaren 30ean) Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren (aurrerantzean TOALTB) artikulua aldatu zituen, toki-erakundeetako fiskalizazioari buruzkoa.

Zehazki, TOALTBko 213. eta 218. artikulua berridatzi zituen, Kontu-hartzailetzak Osoko Bilkurari jakinarazi behar dizkion bi txosten arautzeko: bata, Kontuen Epaitegiari zuzendutakoa, eta, bestea, Osoko Bilkurari berari zuzendutakoa.

Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Araua

Otsailaren 3ko 2/2015 Foru Arauak, Bizkaiko Toki-erakundeen Arrazionalizazioari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Legearen zenbait artikulua aldatu zituen, eta 70. eta 63. artikuluetan honako hau xedatu zuen:

63. artikulua. Urteko kontuak prestatu eta onesteko prozedura.

(...)

4. Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekin batera, Kontu Orokorra Udaltzaizaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailearen 31 baino lehen onetsiko da.

5. Toki erakundeek behar bezala onetsitako Kontu Orokorra eman behar diote Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera; orobat eman behar dizkiete Udaltzaizako buruak eta Udaleko Osoko Bilkurak Kontu-hartzailetzak egindako ingeren kontra hartutako ebazpen eta erabaki guztiak, bai eta sarrerak direla-eta atzemandako gorabehera nagusien laburpena ere. Aurrekoen gainera, toki-korporazioak kasu bietan aurkeztutako justifikazio-txostenak ere eman behar zaizkie Epaitegiari.

70. artikulua. Ingerak.

(...)

6. Kontu-hartzailetzako organoak txostena bidali behar dio Osoko Bilkurari, non Udaltzaizako buruak egindako ingeren aurka hartutako erabaki guztiak jasoko diren, eta sarrerak direla-eta atzemandako gorabehera nagusien laburpena ere bidali behar dio. Txosten borretan bakarrik jasoko dira fiskalizazio-eginkizunari lotuta dauden alderdiak eta egitekoak, eta ez dira sartuko fiskalizatzen diren jarduketak ikusita egokitzen edo komenigarritzat jo litezkeen beste alderdi batzuk. Udaltzaizako buruak bere jarduna justifikatzeko txostena aurkeztu ahal izango dio Osoko Bilkurari.

424/2017 ERREGE DEKRETUA

Bestalde, apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuak, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautu zuenak, honako hau ezarri zuen:

37. artikulua. Laburpen-txostena:

1. *Organo kontu-hartzaileak, urtero, kontu orokorraren onespeneraren harira, laburpen-txosten bat prestatu beharke du Toki Ogasunak arautzen dituen Testu Bateginaren 213. artikulua ezartzen duen barne-kontrolaren emaitzei buruz.*

117/18 FORU DEKRETUA

Bizkaiko tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzeko abuztuaren 22ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 117/2018 Foru Dekretuaren (2018-08-28ko 165. BAO) IV. tituluan Laburpen Txostena eta Ekintza Plana arautu dira (2019ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko dira indarrean, bigarren azken xedapenean ezarritakoari jarraikiz).

37. artikulua.— Urteko txostena

1. *Organo kontu-hartzaileak, urtero, kontu orokorraren onespeneraren harira, laburpen-txosten bat prestatu beharke du.*

2. *Laburpen-txostena Osoko Bilkurari bidaliko zaio, Udalbatzaren bitartez, Aurrekontua Betearazteko Aruan ezarritakoarekin bat etorri, eta araurik ezean, kontu orokorraren onspena dela eta, aurreko ekitaldian egindako kontu-hartzailetzako eginkizunaren eta finantza-kontrolaren jarduketatik sortutako emaitzarik adierazgarrienak jasoko dira bertan.*

38. artikulua.— Ekintza Plana

1. *Tokiko entitatearen presidentetzat ekintza plan bat egingo du aurreko artikuluan aipatutako laburpen-txostenean jasotzen diren abultasunak, urritasunak, akatsak eta ez-betetzeak zuzentzeko.*
2. *Ekintza plana, gehienez ere, hiru hileko epean egingo da, laburpen-txostena Osoko Bilkurari bidaltzen zaion unetik aurrera. Bertan, gauzatutako neurri zuzentzaileak, pertsona arduraduna eta egingo diren jarduketan egutegia jasoko dira, bai udalari dagozkionak, bai barne-kontrola duen mendeko erakunde edo erakunde atxikiei dagozkienak.*
3. *Ekintza Plana tokiko entitatearen kontu-hartzailetza organoari bidaliko zaio, eta hark baloratuko du aipatutako akatsak zuzentzeko egokia den, eta, hala badagokio, lortu diren emaitzak ere bai. Udalbatzak barne-kontrola egiteko ikusarazi diren abaltasunen zuzenketen egoerari buruzko informazioa emango dio Osoko Bilkurari, eta Osoko Bilkurak, horrela, finantza eta ekonomiaren kudeaketa hobetzeko neurri zuzentzaileen aldizkako jarraipena egingo du.*

Aurrekontua Betearazteko Araua

Aurrekontua Betearazteko Arauaren seigarren titulua, “Gastuaren fiskalizazioa eta kontrola”, honako hau xedatzen du hitzez hitz:

18. OINARRIA.- AURRETIKO FISKALIZAZIO MUGATUA

Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko martxoaren 30ean egindako batzarrean, udal kontu-hartzaileak proposatuta, aho batez erabaki zuen 10/2003 Foru Arauaren 71. artikuluan aurreikusitako fiskalizazio mugatuaren ezarpena onestea. Bertan adierazten da gaien aurretiko fiskalizazioa honako alderdiak egiaztatzeko bakarrik egingo dela. Aurrekontua betearazteko honako arau hau 2015eko Udal Aurrekontuaren eranskin modura onetsi zen, eta haren bitartez C atala gehitu zen, gastu-betebeharra daukaten agiriei buruzkoa.

Aurretiazko fiskalizazio mugatuaren betebeharrak hain hedagarria da Leioako Udalaren mende dauden erakunde autonomoien dagokionez: Soinu Atadia eta Euskararen Erakundea.

Derrigorrez aurretiko fiskalizazio mugatua jasan behar duten edukiak

A.- Aurrekontuetan krediturik dagoen ala ez, eta proposatzen dena egokia den ala ez hartu nahi den gastuaren edo eginbeharraren izaerarako.

B.- Betebeharrak edo gastuak eskumena daukan organoak sorrarazitakoak direla.

C.- Betebeharra edo gastua eusten duten agiriak beharrezko sinadurak eta baldintzak dauzkatala. Horren harira, gastuaren betebeharra aitortzeko euskarri den dokumentuak zerbitzua, hornikuntza, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzeke edo oniritzia emateko arduradunaren sinadura jasoko du.

D.- Kudeaketaren prozesuan daukaten garrantzia dela eta, Osoko Bilkuran zehazten diren bestelako puntuak.

Kontu-hartzailetza organoak komenigarritzat jotzen dituen ohar osagarriak egin ahal izango ditu, baina horiek ez dute inolaz ere ondorioz izango dagozkien espedienteen izapidetzeak eteteke. Horrez gain, betebeharrak osagarri horiei dagokionez, ez da desadostasun-planteamendurik aplikatuko. Udal Kontu-hartzailetzak ahalmena izango du material inbentariaezinen gastuak eta kontratu txikiak aurretiaz hartuko diren ala ez erabakitzeke; era berean, segidako traktuko inguruan erabaki ahal izango du, egintza edo kontratu sortzailearen edo bere aldarazpenen hasierako epealdiko gastuaren kontu hartu ondoren. Nolanahi ere, atal kudeatzailearen ardura izan ahalko da kasuan kasuko aurrekontu partidetan kreditua dagoela egiaztatzea eta alkatetzak-udalburutzak horri dagokionez onartutako jarraibideak ziurtatzea; edonola ere, azken horiek gailenduko dira.

Geroagoko fiskalizazioa

10/2003 Foru Arauaren 71. artikuluko 2. atalak aipatutako aurretiko fiskalizazio mugatua egiteko duten obligazio edo gastuei beste fiskalizazio oso bat egin ahal izango zaie ondoren, fiskalizazio hori sorrarazi zuten egintzak, agiriak edo espedienteak ordezkatzeko dituen laginketa baten gainean, laginketa edo auditoriako teknikak erabilia; betiere, kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera diren egiaztatu eta kredituen kudeaketan legezketasuna noraino bete den zehazteko denean. Eraitza barne-kontrolari buruzko urteko txostenean jasoko da. Txostena, ahal dela, kasuan kasuko ekitaldiko kontu orokorra onestean aurkeztuko da erakundearen osoko bilkuran.

Eragozpenak eta horien izapidetzea

Kontu-hartzailetzaren zereginak egin bitartean kontu-hartzailetza organoak aztertutako ekintza, agiri edo espedienteen mami edo itxurarekin ados ez dagoela adierazten badu, idatziz aurkeztu beharko ditu **eragozpen** horiek, erabakia edo ebazpena hartu aurretik, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 70. artikuluko araututakoari jarraikiz.

Zehazki, aurretiazko fiskalizazio mugatua aintzat hartutako alderdiak aztertzean erakunde kontu-hartzaileak argudiatzen badu egiaztatu beharreko alderdiak ez direla bete, idatziz jakinarazi beharko dio arlo kudeatzaileari; azken hori eragozpenarekin **ados agertuz gero**, espedientea zuzendu ahalko da, edo espedientea izapidetzea bertan behera utzi ahalko da.

Espedientea zuzenduz gero, espedientea berriz ere kontu-hartzaitza organo berera bideratuko du.

Arlo kudeatzailea **ados ez badago**, eragozpen txostena emango du. Kasu horretan, eragozpena gehienez bost eguneko epean eman beharko da, eta eragozpen txostenaren kopia igorri beharko da bai kontu-hartzaitza organora, bai gastua onartzeko eskumena duen organora (Alkatetza edo osoko bilkura, izapidetza nori dagokion kontuan hartuta, eragozpen objektuaren arabera eta bertan behera utzi bada edo ez aintzat hartuz). Hala hurrengo bi egoerak izango ditugu:

I- Osoko bilkuran ebatzi beharreko eragozpenei dagokienez (“aurretiko fiskalizazio mugatuak derrigorrez jaso behar dituen edukiak” epigrafearen A eta B atalak), ebazpenak halabeharrez egin beharko du aldaketaren bat aurrekontuan gastu hori estaltzeko. Hau da, honako bi kasu hauetan horrela jokatu beharko litzateke:

c) Kreditua nahikoa edo egokia ez delako, edo organoa eskuduna ez delako, sortzen direnean.

d) Eragozpenak osoko bilkurak onartu beharreko obligazioei edo gastuei buruzkoak direnean.

c) Iraungitako kontratuetan oinarritutako fakturak onartzeari dagokio. Kontratuaren babesetik kanpo jasotako lehen fakturaren eragozpena bertan behera uztea Osoko Bilkuraren esku utziko da, eta egoera berberetan edo antzekoetan gertatuko diren hurrengoak ebaztea Alkatetza/Udalburutzaren esku utziko da. Azken atal horri dagokionez, 2019ko ekitaldian egingo den lehenengo Osoko Bilkuran, aurrekontua betearazteko arau hau dagoeneko indarrean badago, aztergaien zerrendako puntu gisa jasoko da ordura arte iraungitako kontratuen fakturen eragozpena bertan behera uztea eta ondorengoak Alkatetzaren esku uztea. Inguruabar hori errepikatu egin beharko da udalbatzan aldaketaren bat gertatzen bada, hauteskunde prozesuaren ondoren gertatzen denean bezala.

II.-Alkatetza-udalburutzak ebatzi beharreko eragozpenen izapideei dagokienez, azken horrek egokitzen jotzen dituen txostenak galdegin ahalko ditu, horien irizpideen arabera ebazteko. Hori horrela, Kontu-hartzaitzaren oharrek edo eragozpenek etete-eraginik ez badute, ez zaizkie kudeaketa-organoen iritziei gailenduko, ez eta Alkatetza-udalburutzak finantza-babesean eskudun den kontrol-organuari eska diezazkiokeen txostenei ere. Kontuan izanik oharrak egiten dituzten Kontu-hartzaitzako txosten guztiak kasuan kasuko dekretuari gehitzen zaizkiola Alkatetzak hori izenpetu aurretik, eta goiburuan aipatzen direla, ondorio egokiak izan ditzan txostena organo eskudunari emateko izapidea egindakotzat jotzen da.

19. OINARRIA.- INFORMAZIOA

Toki Erakundeko buruak ekitaldian igarotako denboraldiaren finantza- eta aurrekontu-informazioa igorriko dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari, hiru hilean behin, gutxienez. Informazio horrek Osoko Bilkurak zehaztutako egitura izango du.

- Diru-sarreraren aurrekontua, partida-mailan eta kapitulukako laburpena.
- Gastuen aurrekontua, partiden, kostu-zentroen eta arloen mailan.
- Kontaketa-akta.

FISKALIZAZIO OSOA

I.- Osoko Bilkurari informazioa hiru hilerik behin emateko betebeharra

Aurrekontua Betearazteko Arauak 19. oinarrian ezartzen duen informazioa hornitzeko betebeharra gauzatuz, eta aurrekontu-egonkortasunari, gastuaren arauari, ordaintzeko batez besteko aldiari eta ordaintzeke dauden fakturak eskatzeari lotutako betebeharren betetzeari buruzko hiru hilez behingo informazioarekin osatuta, jarraian zerrendatzen diren Kontu-hartzailetzako txostenak eta Diruzaintzako txostenen laburpenak jakinarazi zaizkio Osoko Bilkurari ekitaldiko hiruhileko bakoitzean. Gauzak horrela, Udaltzaren ondoko erabakiak hartu dira:

- Udaltzaren 7. Erabakia, 2019-05-31koa; horren bidez, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren aurka Borrokatzeko Neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa betez egindako Kontu-hartzailetzako txostenaren eta Diruzaintzako txostenaren laburpenaren beri eman zen, bai eta 2018ko lehenengo hiruhilekoari dagozkion betearazpen-egoerena, aurrekontu-egonkortasunaren betetze mailarena eta gastu-arauarena ere. Bizkaiko Foru Aldundira bidali da (finantza-tutoretza)
- Udaltzaren 3. Erabakia, 2019-09-27koa; horren bidez, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren aurka Borrokatzeko Neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa betez egindako Kontu-hartzailetzako txostenaren eta Diruzaintzako txostenaren laburpenaren beri eman zen, bai eta 2018ko bigarren hiruhilekoari dagozkion betearazpen-egoerena, aurrekontu-egonkortasunaren betetze mailarena eta gastu arauarena ere. Bizkaiko Foru Aldundira bidali da.
- Udaltzaren 3. Erabakia, 2019-11-29koa; horren bidez, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren aurka Borrokatzeko Neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa betez egindako Kontu-hartzailetzako txostenaren eta Diruzaintzako txostenaren laburpenaren beri eman zen, bai eta 2017ko hirugarren hiruhilekoari dagozkion betearazpen-egoerena, aurrekontu-egonkortasunaren betetze mailarena eta gastu arauarena ere. Bizkaiko Foru Aldundira bidali da.
- Udaltzaren 5. Erabakia, 2019-02-28koa; horren bidez, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren aurka Borrokatzeko Neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa betez egindako Kontu-hartzailetzako txostenaren eta Diruzaintzako txostenaren laburpenaren beri eman zen, bai eta 2017ko laugarren hiruhilekoari dagozkion betearazpen-egoerena, aurrekontu-egonkortasunaren betetze mailarena eta gastu arauarena ere. Bizkaiko Foru Aldundira bidali da.

KONTU-HARTZAILE EGINKIZUNA

Kontu-hartzailetzaren eginkizunetan fase hauek egongo dira, eta honako epigrafe hauetan aztertuko dira:

- a) Aurretik fiskalizatzea eduki ekonomikoko eskubideak onartu, gastuak baimendu edo onartu, gastuak xedatu edo konprometitu, bidegabeko sarreraren itzulketa erabaki eta agindu eta funts eta baloreen mugimenduak erabakitzen dituzten egintzak.
- b) Kontu-hartzea egitea obligazioen onarpenaren eta inbertsioaren egiaztapen materialaren gainean eta, oro har, funts publikoen aplikazioaren gainean.
- c) Kontu-hartze formala egitea ordainketa aginduaren gainean.
- d) Kontu-hartzea materiala egitea ordainketaren gainean.

Eginkizun kontu-hartzailea modalitate formal eta materialean beteko da. Modalitate formalean, erabakia hartzeko beharrezkoak diren legezko baldintzak betetzen direla ziurtatuko da, derrigorrez espedientean

sartu behar diren agiri guztiak aztertuta. Modalitate materialean, aldiz, funts publikoak benetan eta efektiboki aplikatzen direla egiaztatuko da.

II.- 2018ko ekitaldiko fiskalizazioaren emaitzak (a. Kontu-hartzailetzaren eginkizuna)

Ondorioz, aurreko guztiarekin bat etorritz eta, batez ere, Aurrekontu Orokorrekin batera eranskin gisa onetsitako Aurrekontua Betearazteko Arauaren “Gastuaren Fiskalizazioa eta Kontrola” VI. tituluan ezarritakoa betez, Kontu-hartzailetzaren urteko txostenaren berri ematea, puntu independente gisa, gai-zerrendaren barruan.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago jaso diren datu guztiak 2018ko urtarrilaren 1aren eta urte bereko abenduaren 31ren arteko espedientei buruzkoak direla.

AURRETIKO fiskalizazio MUGATUAREN emaitzak, 2018

Aurreko guztia ikusita, eta gaia arautzen duen araudian xedatutakoa betez, honako hau jakinarazten da: 2018ko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31ren artean fiskalizatutako 1.481 espedienteetan, arduradunek izapidetzeari uko egin diotelako edo konpondu direlako baztertu diren eragozpenak eta oharrak alde batera utzita, Kontu-hartzailetza honek, gaur egun arte, ez du eteteko oztoporik adierazi aipatutako ekitaldian. Izan ere, ez daude honako zio hauetan oinarrituta: a) kreditu gutxiegi egotea; b) proposatutakoa desegokia izatea hartu nahi den gastuaren edo betebeharraren izaerarako; c) arduradunaren sinadurarik ez agertzea dokumentuan, hori betebeharra aitortzeko euskarri baita, eta zerbitzuaren, horniduraren, inbertsioaren edo egindako gastuaren oniritzia baitakar; d) organo ez-eskudunak onetsi izana.

Fiskalizaziorako espedienteak direla eta, esan behar da horietako 939tan oharra dekretuaren testuan bertan egin dela (goiko aldeko eskuinaldean); gainerako 542tan, hau da, espedienteen % 36,59an, gutxi gorabehera, dagokion fiskalizazio-txostena edota kreditu-izakinaren txostena ekarri dute, espazio handiagoa behar delako (zenbait aurrekontu-aplikazio barne hartzen ditu, informazio osagarria jasotzeko egokitasuna) edo proposatutako gastuari edo erreferentzia-espedientei buruzko oharrak jasotzen dituztelako (prozedura eteten ez duten eragozpenak).

Zehazkiago, fiskalizatu diren 1.481 espedienteetatik 179tan, hau da, aurretiko fasean fiskalizatutako bolumen osoaren % 12,08an, 2018ko aurrekontua betearazteko emandako ebazpenak jasotzen dira, zeinek Kontu-hartzailetzak adierazitako eragozpenen (etenik edo oharrak ez dakartzatenak) aurka egiten duten.

Ohar horiek guztiak kontratazioaren alorrekoak dira.

Ebazpenei dagokienez, berriz, jarraian zerrendatzen diren hirugarrenentzako ordainketa-aginduak izan dira, jarraian ere adierazten diren kontratuatarako. Kasu guztietan, fakturatu behar diren zerbitzu eta hornidura guztiak eman ziren, eta hala egiaztatu zuen zerbitzuaren arduradunak dagokion fakturan idatzitako sinadura. Alabaina, kontratazio-prozeduraren izapideak ez datoz bat kasu bakoitzerako gai hori arautzen duen araudiak ezartzen duenarekin (Sektore Publikoko Kontratuari buruzko 9/2019 Legearen (SPKL) testu bategina, 2019ko martxoaren 1etik aurrera). Espedienteetan ez da asmo txarrik ikusi eta, dagokion organoak aztertu ostean, ordaindu egin dira administrazioaren aberaste bidegabearen printzipioari jarraikiz, kontrako ekintza ekarriko lukeena.

Bide batez, berariaz aipatu behar da jarraian adierazi diren zenbakietako kontratuak dagoeneko ez daudela egoera irregularrean:

- ✓ **Zk.: 1_ 31/17** Espedientea_Elai: Sarriena, lorategi-eremuetako mantentze-lanak (...): 2018ko uztailaren 23an formalizatu zen.
- ✓ **Zk.: 3_ 27/17** Espedientea_Gesmunpal: Zerga-bilketarako eta zehapen-prozedurarako laguntza teknikoa (...): 2018ko ekainaren 1ean formalizatu zen.
- ✓ **Zk.: 12_ 14/17** Espedientea_Agintzari: Esku-hartze psikosoziala (...): 2018ko uztailaren 4an formalizatu zen.
- ✓ **Zk.: 19_**Muskulazio emakida.
- ✓ **Zk.: 21_**Gardabera: Eguerdian ere euskaraz (...): 2019ko otsailaren 20an formalizatu zen.

Bestalde, 11. kontratua “Lagunduz, Etxez Etxeko Laguntza”, lizitazio-prozeduran dago.

	Enpresak	Kontratuak	Egoera
1	Elai Zerbitzuak	Lorategiak dituzten eremuak, belar artifizialeko zelaia eta Sarriena dagoen belar naturaleko futbol-zelaia mantentzea.	Epemuga: 2014-01-30
2	Hirurok Zerbitzuak	Oinarrizko azpiegitura eta txarteldegirako, lekuak erakusteko eta ikusleak kontrolako langileak, auditoriumean eta Kultureko Ambigún.	Epemuga: 2017-05-22
3	Asesoramiento en Procedimiento Sancionador S.L.	Laguntza eta babes teknikoko zerbitzua mugikortasuneko eta bide-segurtasuneko programaren segimenduan, eta kudeaketa osoa zehapen-prozeduran.	Epemuga: 2012-12-31
4	Zurich Insurance PLC (Aon Gil-ek eta Carvajal SA enpresak proposatuta)	Udalaren kalte materialen eta erantzukizun zibilaren aseguru-primak.)	Lizitatu barik.
5	Diseño e Imagen OMA 3 S.L.	Udal-aldizkari baten eta Udalaren argazki-zerbitzuen diseinua, prestaketa, idazketa, ekoizpena eta banaketa.	Epemuga: 2015-12-14
6	Tarima Logística y Espectáculo S.L.	Aurrez aurreko ikuskizunen eta proiektio zinematografikoen ekoizpen teknikoa, bai eta Leioako Udalaren Kultura eta Gazteria Arloko eszena-espazioetan harrera egiteko, antzezteko eta gero desmuntatzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen prestazioa, baita instalazioen prebentziozko mantentzea eta arrunta ere.	Epemuga: 2016-08-01

7	La Casa del Perro	Etxeko animalien udal-zerbitzua	Epemuga: 2013-09-01
8	Alaiki Zerbitzu Gizakulturalak S.L.	“Aterpe Leioa Gaztegunea” kudeaketa-zerbitzua	Epemuga: 2016-10-31
9	T-Systems	Leioako Udalaren ERPren barruan dauden kudeaketa-aplikazioetarako mantentze-zerbitzua.	Epemuga: 2017-04-20
10	Caser (EBS SA enpresak proposatuta)	2018ko bizi-aseguru kolektiboa.	Lizitatu barik.
11	Lagunduz- Laguntza emateko Elkarte	Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	Epemuga: 2017-03-13
12	Agintzari S.Coop.	Esku-hartze psikosozialeko zerbitzua	Epemuga: 2015-01-01
13	Solasgunea (M ^a Eugenia Fernández Dobaran)	Leioa udalerrirako hezkuntza-proiektu eta -ekintzak diseinatzeko, antolatzeko eta garatzeko zerbitzua.	Epemuga 2015-12-15
14	Etorkintza Fundazioa	Mendekotasunak Prebenitzeko Programa garatzeko zerbitzuak.	Epemuga 2017-05-30
15	Dual (Aon Gil-ek eta Carvajal SA enpresak proposatuta)	Administrarien eta goi-zuzendarien erantzukizun zibileko aseguru.	Lizitatu barik.
16	Eraman Gruas eta Servicios SA	Udal garabi-zerbitzua	Epemuga: 2017-07-17
17	IMSA_Gestores Europeos sozietate mugatua	Diru-laguntzen arloan laguntza teknikoa emateko zerbitzuak.	Epemuga: 2017-09-07
18	Enviser	Udal lokalak garbitzea	Epemuga 2017-11-07
19	Javier Allende Villanueva	Muskulazio emakidaduna	Iraungita
20	Ambytecno	Haurrentzako parkeen eta parke biosasungarrien mantentze-lanak Leioako udal-mugartean	Epemuga 2018-07-29
21	Gardabera SL	"Eguerdian ere Euskaraz" zerbitzua	Epemuga 2018-11-08
22	Alaiki Zerbitzu Gizakulturala SL	Pinueta Kulturgunea ludoteka dinamizatze zerbitzua	Epemuga 2018-09-26

Gaur egun, entitateak ez dauka Kontratzeko Urteko Planik onetsita.

Kontratu txikiei dagokienez, kontuan hartu behar da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea sartu dela indarrean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, eta Leioako Udalean, Alkatzaren 2018ko martxoaren 5eko 629/18 Dekretuaren bitartez, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak proposatuta, horiek izapidetzeko ereduak dekretuak eta laburpen-txostenak definitu diren, bai eta 118, 29, 36, 63, 131, 153 eta 154 artikuluan interpretatzeko irizpide teknikoak ere. Era berean, Leioako Udaleko eta bi erakunde autonomoetako langile guztiei araudi berria indarrean jartzerakoan aintzat hartu behar ziren konturik garrantzitsuenak.

118. artikulua. Kontratazio-espeditentea kontratu txikietan..

1. Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira, alde batera utzi gabe estatu-mailan zentralizatutako obrei, zerbitzuei eta horniketei buruz 229. artikuluan ezarritakoa.

Kontratu txikietan, espeditentearen izapidetzeak kontratazio-organoaren txostena eskatuko du, kontratuaren beharrezanaren zioak ematen dituena. Halaber, gastua onestea eskatuko da, eta dagokion faktura espeditenteari gebitzea; fakturak lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete behar dira.

2. Obra-kontratu txikian, obren aurrekontua ere gebitu behar da; nolabai ere, dagokion proiektua ere behar da arau espezifikoei horrela eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikulua aipatzen duen gainbegiratze-bulego edo -unitateen txostena eskatu behar da, baldin eta lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badie.

3. Espedientean, justifikatuko da ez dela kontratuaren objektua aldatzen ari kontratazioaren arau orokorren aplikazioa saihesteko, eta kontratistak ez duela izenpetu kontratu txiki gehiagorik, banaka edo guztiak batera artikulua bonen lehenengo apartatuan ageri den kopurua gainditzen duenik. Kontratazio-organoak egiaztatuko du arau hori bete egiten dela. Kanpoan gelditzen dira 168.a).2.a artikuluan jasotako kasu.

4. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako eran argitaratuko dira

Ut supra aipatutako artikulua interpretazioa ez da batera baketsua, eta horren adibide dira erkidegoetako eta estatuko kontsulta batzordeek hori buruz adierazi dutena (kontraesankorrak ere bai). Hauexek dira adierazgarriak:

KONTSULTA BATZORDEEK SPKL-N KONTRATU TXIKIEN ARAU DLARI BURUZKO EGIN DITUZTEN ADIERAZPENAK	
<i>Estatuko Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordea</i>	<i>5/2018 txostena</i>
<i>Kataluniako Generalitateko Administrazio Kontratazio Kontsulta Batzordea</i>	<i>1/2018 txostena</i>
<i>Aragoiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontratazio Kontsulta Batzordea</i>	<i>3/2018 txostena</i>
<i>Madrilgo Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontratazio Kontsulta Batzordea</i>	<i>1/2018 txostena</i>
<i>Galiziako Administrazio Kontratazio Kontsulta Batzordea</i>	<i>1/2018 txostena</i>
<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoko Abolkularitza Batzordea</i>	<i>1/2018 Gomendioa</i>
<i>Kanarietako Administrazio Kontratazio Kontsulta Batzordea</i>	<i>1/2018 Gomendioa</i>

<i>Valentziako Generalitateko Administrazio Kontratazioko Goir Batzordea</i>	<i>4/2018 txostena</i> <i>8/2018 txostena</i>
--	--

Aipatutako dekretuan xedatutakoa betetze aldera, eta entitateak eta mendeko organoek benetan betetzen dutela kontrolatu ahal izateko, hiru dokumentu automatizatu prestatu dira Excel formatuan. Bertan, elkarren segidan adierazi dira kontratazio-organismoak egiten dituen kontratu txiki guztiak, eta berenberegiri adierazten da kontratu-mota eta hornitzaile bakoitzarentzat metatutako zenbatekoa, urte naturalarekin bat egiten duen urterokoaren denbora-mugarekin.

Txosten honi erantsi zaio Leioako Udalean 2018ko ekitaldian egindako kontratuen zerrenda. Guztira, 1.481 izan dira, eta metatutako zenbatekoak adierazi dira, tipologia eta hornitzailearen arabera, bai eta mugak gainditu diren kontratuak ere, aurreko paragrafoan aipatu diren interpretazio guztiak gorabehera.

Hiru hilerik behin, mota horretako kontratuak tokiko entitatearen Gardentasun atarian argitaratzen dira (<http://leioazabalik.leioa.net/eu/contrato>), eta Kontratazio Saileko idazkariak bidaltzen ditu kontratatzailearen profilean gauza bera egiteko.

~~dirulaguntzen~~ dirulaguntzen espedienteak direla eta, esan behar da 2018an egin diren deialdi publikoen % 100ek Leioako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorren babesean alkatetza-dekretuaren bidez onetsitako prozeduraren oinarri arautzaileak izan dituztela. Halaber, espedienteetan jasota dago kasu bakoitzeko emakida-dekretua, txosten tekniko batean oinarritutakoa.

Izapidetu diren diru-laguntzen % 100 2017-2020 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan aurreikusi dira. Txosten hau egin zen egunean, egiteke zeuden jarraipena eta ebaluazioa, bai eta dirulaguntzen datu-base nazionalean islatzea ere.

Emandako eta ordaindutako dirulaguntza izendun fiskalizatuen kasuan, adierazi behar da guztiak islatu zirela 2018. urteko Aurrekontu Orokorrean eta haren Transferentzien Eranskinean, eta berariaz adieraziko dira kontzeptua, hirugarrena eta zenbatekoa.

Entitatearen kudeaketa hobetzeko esparruan eta eraginkortasun eta efizientziaren mailak handitzeko, administrazio elektronikora igarotzea errazteko, 2018ko ekitaldian Idazkaritza eta Kontu-hartzailetza arloek dirulaguntzei lotutako espedienteak parametrizatu dira zentzurik zabalenean. Horrenbestez, beste entitate batzuei eskatzen zaizkienak eta udalak berak ematen dituenak hartzen dira kontuan.

Horren ondorioz sortu zen Alkatetzaren 2018ko irailaren 17ko 2.541/18 Dekretua, eta arlo guztiei jakinarazi zitzairen.

Alkatetzaren instrukzio horretan bertan, udalaren lokalak irabazi asmorik gabeko entitateei lagatzeko eredu eta izapide guztiak jaso ziren.

Gauza bera egingo da aurten, 2019ko ekitaldian, Giza Baliabideei lotutako espedienteen izapideetan; izan ere, langile publikoen eta hautetsien nomina onesteko espedientea garrantzitsuenetako bat da, bai zenbatekoari dagokionez, bai maiztasunari dagokionez (erregularra-hilekoa).

Horrenbestez, Leioako Udaleko kontratazioen (2. eta 6. kapituluak), dirulaguntzen (4. eta 7. kapituluak) eta langileen (1. kapitulua) espedienteak parametrizatzeko prozesua amaitu eta gero, 2018. urterako aurrekontu orokorraren gastuen egoeraren zifrak kontuan izanda, ikuskatu egingo dira ebazpenen eta horien txosten-proposamenen edukia, urteko gastuaren **% 99,70** (hasierako kreditua).

	AURREKONTUA:	2018
1	Langileen gastuak	10.380.972,39 euro.
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	17.404.759,75 euro.
3	Finantza-gastuak	5.000,00 euro.
4	Transferentzia arruntak	3.640.135,69 euro.
5	Kreditu orokorra	100.000,00 euro.
6	Inbertsio errealak	3.489.704,01 euro.
7	Kapital-transferentziak	100.000,00 euro.
		35.120.571,84 euro.

Diru-sarrerak itzultzeko kontzeptuarekin izapidetutako espedientei dagokienez, ez da oharrrik egin.

2018ko fiskalizazioaren emaitzak, **POSTERIOR PLENA 2018ko ekitaldia** (b.c.d Kontu-hartzailetzaren eginkizuna)

➤ **Betebehar onartuaren fasea**

Onartutako betebehar guztiak kontu hartu dira, eta, hori gertatu baino lehen kasu guztietan. Hori onartzeko, honako alderdi hauek hartu ditu kontuan udal Kontu-hartzailetzak:

- Dokumentuekin egiaztatu beharko da betebeharra onartzeko beharrezkoak diren betekizun guztiak betetzen direla, besteak beste, kasu guztietan, entitate edo pertsona hartzekodunaren eskubidea edo prestazioa egin izanaren egiaztapena, gastua baimendu eta konprometitu duten erabakiekin, bai eta inbertsioaren egiaztapen materialaren aldeko emaitza ere.
- Betebeharrak onetsitako gastuenak dira eta, kasuan kasu, alde fiskalizatu dira, salbu eta gastuaren onespina eta betebeharra onartzea aldi berean egin behar badira.
- Betebeharraren justifikazio-dokumentuak aplikatu behar diren lege- eta arau-xedapenen arabera doituko dira. Edonola ere, hauxe jaso beharko da dokumentazioan: Pertsona edo entitate hartzekodunaren identifikazioa; ordaintzeko betebeharra sortzen duten prestazioen, zerbitzuen edo beste arrazoi batzuen eta betebeharraren zenbateko zehatza.
- Materialki egiaztatu da, hala dagokionean, obra, zerbitzua, hornidura edo gastua benetan egin dela, eta, kasuan kasu, dagokion egiaztapena egin dela.

Inbertsioaren egiaztapen materialaren kontu-hartzea eta, oro har, funts publikoak erabiltzea egiteko, zerbitzuaren arduradunak dagokion faktura sinatu du, eta egindako kontratu pribatua, obra, zerbitzua edo hornidura ondo egin dela egiaztatu du. Bestela, dagokion hartu-

agiriaren akta sinatuko da 1.000 euro baino gehiagoko udaleko kontratu txikietarako eta 500 euroko kontratueterako mendeko erakunde autonomoen kasuan. Edonola ere, muga horiek, Kontratuei buruzko Legean gertatzen den bezala, balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe egingo dira.

Beste alde batetik, prozedura ireki sinplifikatuz edo prozedura sinplifikatuz izapidetu diren obren eta horniduren kontratuen % 100en kontu-hartzea udaleko Kontu-hartzaitzarekin egin da, eta bertan egon da hartu direnean, obra amaitu ondoren, edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 198. artikuluaaren bigarren apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, gauzatzearen % 90 gainditu ostean:

2. Prezioaren ordainketa behin edo behin baino gehiagotan egin daiteke, konturako ordainketen bitartez, edo segidako traktuko kontratuen kasuan, aldezturik finkatutako epemuga guztietan ordainduz. Kontratuaren prezioaren % 90ren hurrengo ordainketatik konturako ordainketen zenbateko metatua bera edo handiagoa bada, non, kasuan kasu, onetsitako aldaketak gehituko zuzkion izapidetzen den espedienteari, nabitatezkoa baldin bada, dagokion Kontu-hartzaitzari egindako jakinarazpena erantsi beharke da hartzean laguntzeko inbertsio-materiala egiaztatzeko eginkizunak egiterakoan.

210. artikulua. Kontratuak betetzea eta prestazioa jasotzea.

- 1. Kontratuak betetzat joko da kontratistak prestazioa osorik eta kontratuko baldintzen arabera eta Administrazioaren nabierara gauzatu duenean.*
- 2. Nolanahi ere, hori egiaztatzeko, Administrazioak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat egin behar du kontratuaren objektua entregatu edo betetzen denetik hurrengo bilaren barruan, edo, prestazioaren ezagarririk aintzakotzat hartuta, administrazio-klausula partikularren agirian zehaztuta datorren epearen barruan. Jakinarazpena egitea aginduzkoa denean, administrazio horretako kontu-hartzaitzari jakinaraziko zuzkio egintza borren data eta lekua, egintza horretara joan dadin inbertsioa egiaztatzeko eginkizunak betetzera, hala behar badu*

Hirugarren xedapen gehigarria. 3. apartatua.

Fiskalizazio-lana, berriaz, toki-entitateko organo kontu-hartzaileak egingo du.

Fiskalizazio hori egingo da, halaber, kontratu berri bakoitzaren ondorioei buruz kontratazio-espedienteetan sartzen den balioespenaren gainean, kontratu txikien kasuan izan ezik, toki-entitateak bete dituzan Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7.3 artikulua eskatzen dituen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioak.

Kontu-hartzaitzako organoak kontratu guztien harrera materialean lagunduko du, kontratu txikien kasuan izan ezik, inbertsioen fiskalizatze materialaren eginkizuna betetze aldera, horixe eskatzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duenak, 214.2.d) artikuluan. Harrera borretan, kontratuaren objektuan espezializatuta dagoen teknikari baten laguntza eduki beharke du. Teknikari horrek obra-zuzendariaz eta kontratuaren arduradunaz beste bat izan beharke du. Diputazio probintzietako laguntza-zerbitzuak laguntza emango diete udal txikiei ondore horietarako eta legean aurreikusitako gainerakoetarako.

Hauexek dira 208. urtean Kontu-hartzaitzaren harrera-egintza duten espedienteak:

- 7/18 Kontratazio Espedientea_Ireki sinplifikatua, Euskal Etxeen plazako eta Txorierriko estalkiak kontratatzeko obretarako. Bi loteak Construcciones Mariezcurrena SL enpresari

adjudikatu zitzaizkion zenbateko hauekin: L1_121.488,38 eta L2_177.923,58. Obrak 2018-11-20an hartu ziren Txorierriko kasuan eta 2018-12-20an Errekalderen kasuan. Bi kasuetan egon ziren zuzendaritza fakultatiboa, udaleko arkitektoa eta ingeniari teknikoa, eta aldeko irizpena eman zuten.

➤ **Ordainketa agintzeko fasea**

Espediente guztiak ordaintzeko aginduaren kontu-hartzea egin da formalki. Organo kontu-hartzaileari ordainketa aginduak behar bezala eman direla ziurtatzeko esleitzen zaion ahalmenean datza.

➤ **Ordainketaren kontu-hartze materialaren fasea**

Espediente guztiak ordaintzeko esku-hartze materiala egin da. Ordainketaren kontu-hartze materializat hartzen da organo eskudunak ordainketa hori xedatu duela eta jasotzailearen alde eta behar adinako zenbatekoan egin duela ziurtatzeko organo kontu-hartzaileari esleitzen zaion ahalmena.

Oharrak

Gastuaren hiru aurrekontu-fase horiei dagokionez, hauxe hauteman da: 2018an izapidetu diren ordainketa-proposamenen artean, zenbaitek ondoko zerbitzuen eta horniduren (aldizkakoak eta segidako traktukoak) ordainketa-aginduak jaso dituzte, indarreko kontraturik ez daukatena: udal-eraikinetako energia-hornidura, erregai-hornidura, telefono bidezko komunikazioak, aire girotuko, berokuntza- eta aireztapen-instalazioen mantentze-zerbitzuak.

➤ **Eskubideak eta diru-sarrerak**

Diru-sarrerak itzultzeari dagokionez, tokiko entitatearentzat edo mendeko erakundeentzat gastuak sortzen dituzten espedienteekin egiten denaren antzeko kontrola egingo da. Bestalde, gainerako diru-sarreraren kontrola egiteari dagokionez, benetako kostua kontabilitatean jasoz. Aurretiazko fiskalizazio mugatuaren mendea dago, dagokien zerga-errolaren onespena.

ONDORIOA

Hori jakinarazten da Aurrekontua Betearazteko Arauak eta Bizkaiko Toki-erakundeen Arrazionalizazioari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Legeak xedatutako ondorioetarako, 2018ko ekitaldiko fiskalizazioari dagokionez; horretarako, izapidetu diren espedienteak oinarri hartu dira, baita horretarako egin diren txostenak eta espedienteak ere. Hala badagokio, dokumentazio osagarria ere aurkeztuko da.

Honako txosten hau 2018ko Aurrekontuko Kontu Orokorraren espedienteari lotzen zaio, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igorriko zaio kontuak emateko.

Honako hauek erantsi zaizkio txostenari:

I. eranskin gisa Kontu-hartzailetzan erregistratu diren 1.481 espedienteak, aurretiazko fiskalizazio mugatuaren kontrola egiteko.

II. eranskin gisa 2018ko ekitaldian egindako banakako 542 fiskalizazio-txostenak.

III. eranskin gisa, 2018ko ekitaldiari dagozkion udaleko kontratu txikiak, Leioako Udalaren Gardentasun Atariko argitalpenen arabera.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

7.- 2019ko AURREKONTUA BETEARAZTEKO ARAUAN XEDATUTAKOAREKIN BAT ETORRIZ INDARREAN DAUDEN FAKTUREN ERAGOZPENA BERTAN BEHERA UZTEA:

Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onesteko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2019ko maiatzaren 27an hartutako 40. zenbakiko irizpenaren proposamena; horren egiaztatzea espedientean jaso da.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

Esnatu Leioa Udal Taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea.

Pues yo sí tengo una intervención que es que me reitero en que la cuenta que he hecho no tiene ninguna repetición, que no he repetido ninguna. Díganme cuál he repetido. Son 18 que figuran en el informe de 2018, otras 18...

Euzko Abertzaleak Taldeko M^a del Carmen Urbietta González Alkatearen esku hartzea

Esos son los que estás sumando de más.

Esnatu Leioa Udal Taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea.

No.

Eider Sarria Gutiérrez, Kontuhartzaile andrearen esku hartzea:

Sí.

Esnatu Leioa Udal Taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea.

¡Hombre!

Eider Sarria Gutiérrez, Kontuhartzaile andrearen esku hartzea:

El acuerdo fue que los que aprobáramos en el 2019 ya no volvían a repetirse, pero los del 2018 están repetidos.

Esnatu Leioa Udal Taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea.

Los del 2018 figuran en el informe de 2018, en el 2019 se han aprobado otros 18 y a este Pleno vienen 6.

Euzko Abertzaleak Taldeko M^a del Carmen Urbietta González Alkatearen esku hartzea

No, Rubén, se repiten, los de 2018 se repiten en el 2019.

Esnatu Leioa Udal Taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea.
¡Que no se repiten en el 2019!

Euzko Abertzaleak Taldeko M^a del Carmen Urbieto González Alkatearen esku hartzea
¿Nos lo puedes aclarar igual, Eider, por favor?

Eider Sarria Gutiérrez, Kontuhartzaile andrearen esku hartzea:

Sí. A ver, la mayoría de ellos sí que son servicios o contrataciones que han estado vigentes durante el año 2018, por eso están recogidos en el informe de fiscalización este que se enumeran 20; algunos de ellos son los que hemos traído durante el año 2019 para levantar el reparo, otros no están porque ya se han licitado y algunos se han incorporado porque han entrado en fecha de vencimiento en el ejercicio 2019, como por ejemplo el que hemos visto en el punto anterior, el de Biológica, que ese no está en el informe de fiscalización y sí está en el informe de 2019. Hay algunos, 4 en concreto, que ya están contratados, entonces no los hemos visto durante 2019 —por ejemplo, el de la jardinería de Sarriena, etc., o la recaudación ejecutiva—, y en este periodo de enero a mayo de 2019 ha expirado el período para el cual fueron contratados otros, que sí que nos hemos traído, pero en muchos de ellos sí que es verdad que es una situación que se ha venido manteniendo en el tiempo, estaban en 2018 fuera del plazo legal de contratación y permanecen en el 2019. Entonces algunos sí que están, los hemos visto tanto en el informe resumen anual del 2018 como en diferentes puntos de levantamiento de reparo del 2019.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko hamalau botoren gehiengoarekin, bilkurara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzien, Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzien eta EH Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzien aldeko botoekin, eta kontrako hiru botorekin, bilkurara bertaratutako Esnatu Leioa taldeko hiru zinegotzianak, eta bi abstentziorekin, Leioako Alderdi Popularreko bienak, honako hau **ERABAKI DU**:

Kontuan hartu da 2018ko abenduaren 13ko Osoko Bilkuraren 1. Erabakia, 2019ko Aurrekontu Orokorren hasierako onespina eman ziona, behin betiko argitaratu zena 2019ko otsailaren 7ko 27. BAOn.

Kontuan hartu da Seigarren Titulua, Aurrekontua Betearazteko Arauaren Gastu Kontrola eta Fiskalizazioa, Udal Aurrekontuaren nahitaezko eranskina, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren xedatutakoaren arabera, Bizkaiko toki erakundearen aurrekontuarena; hala, Osoko Bilkuren eskumena izango da iraugitako kontratuaren oinarrituz fakturak onartzeari dagozkion eragozpenak bertan behera uztea. Kasu hauetan kontratuaren babesetik kanpo jasotako lehen fakturaren eragozpena bertan behera uztea Osoko Bilkuraren esku utziko da, eta egoera berberetan edo antzekoetan gertatuko diren hurrengoak ebaztea Alkatetza/Udalburutzaren esku utziko da. Azken atal horri dagokionez, 2019ko ekitaldian egingo den lehenengo Osoko Bilkuran, aurrekontua betearazteko arau hau dagoeneko indarrean badago, aztergaien zerrendako puntu gisa jasoko da ordura arte iraugitako kontratuen fakturen eragozpena bertan behera uztea eta ondorengoak Alkatetzaren esku uztea. Inguruabar hori errepikatu egin beharko da udalbatzan aldaketaren bat gertatzen bada, hauteskunde prozesuaren ondoren gertatzen denean bezala.

“18. OINARRIA.- AURRETIKO FISKALIZAZIO MUGATUA

Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko martxoaren 30ean egindako batzarrean, udal kontu-hartzaileak proposatuta, abo batez erabaki zuten 10/2003 Foru Arauaren 71. artikuluan aurreikusitako fiskalizazio

mugatuaren ezarpena onestea. Bertan adierazten da gaien aurretiko fiskalizazioa honako alderdiak egiaztatzekeo bakarrik egingo dela. Aurrekontua betearazteko honako arau hau 2015eko Udal Aurrekontuaren eranskin modura onetsi zen, eta haren bitartez C atala gehitu zen, gastu-betebebarra daukaten agiriei buruzkoa.

Aurretiazko fiskalizazio mugatuaren betebebar hau hedagarria da Leioako Udalaren mende dauden erakunde autonomoi dagokienez; Soinu Atadia eta Euskararen Erakundea.

Derrigorrez aurretiko fiskalizazio mugatua jasan behar duten edukiak

A.- Aurrekontuetan krediturik dagoen ala ez, eta proposatzen dena egokia den ala ez hartu nahi den gastuaren edo eginbeharraren izaerarako.

B.- Betebeharra edo gastuak eskumena daukan organoak sorrarazitakoak direla.

C.- Betebebarra edo gastua eusten duten agiriak beharrezko sinadurak eta baldintzak dauzkatala. Horren barira, gastuaren betebebarra aitortzeko euskarri den dokumentuak zerbitzua, hornikuntza, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzekeo edo oniritzia emateko arduradunaren sinadura jasoko du.

D.- Kudeaketaren prozesuan daukaten garrantzia dela eta, Osoko Bilkuran zehazten diren bestelako puntuak.

Kontu-hartzailetza organoak komenigarritzat jotzen dituen ohar osagarriak egin abal izango ditu, baina horiek ez dute inolaz ere ondoriorik izango dagozkien espedienteen izapidetzeak etetekeo.

Horrez gain, betebebar osagarri horiei dagokienez, ez da desadostasun-planteamendurik aplikatuko.

Udal Kontu-hartzailetzak abalmena izango du material inbentariaezinen gastuak eta kontratu txikiak aurretiaz hartuko diren ala ez erabakitzekeo; era berean, segidako traktuko inguruan erabaki abal izango du, egintza edo kontratu sortzailearen edo bere aldarazpenen hasierako epealdiko gastuaren kontu hartu ondoren. Nolanahi ere, atal kudeatzailearen ardura izan abalko da kasuan kasuko aurrekontu partidetan kreditua dagoela egiaztatzea eta alkatetzak-udalburutzak horri dagokionez onartutako jarraibideak zurratzea; edonola ere, azken horiek gailenduko dira.

Geroagoko fiskalizazioa

10/2003 Foru Arauaren 71. artikuluko 2. atalak aipatutako aurretiko fiskalizazio mugatua egiteko duten obligazio edo gastuei beste fiskalizazio oso bat egin abal izango zaie ondoren, fiskalizazio hori sorrarazi zuten egintzak, agiriak edo espedienteak ordezkatzeko dituen laginketa baten gainean, laginketa edo auditoriako teknikak erabilia; betiere, kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera diren egiaztatu eta kredituen kudeaketan legezketasuna noraino bete den zehazteko denean. Emaitza barne-kontrolari buruzko urteko txostenean jasoko da. Txostena, abal dela, kasuan kasuko ekitaldiko kontu orokorra onestean aurkeztuko da erakundearen osoko bilkuran.

Eragozpenak eta horien izapidetzea

*Kontu-hartzailetzaren zereginak egin bitartean kontu-hartzailetza organoak aztertutako ekintza, agiri edo espedienteen mami edo itxurarekin ados ez dagoela adierazten badu, idatziz aurkeztu beharkeo ditu **eragozpen** horiek, erabakia edo ebazpena hartu aurretik, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 70. artikuluko araututakoari jarraiki.*

*Zehazki, aurretiazko fiskalizazio mugatuan aintzat hartutako alderdiak aztertzean erakunde kontu hartzaileak argudiatzen badu egiaztatu beharreko alderdiak ez direla bete, idatziz jakinarazi beharke dio arlo kudeatzaileari; azken hori eragozpenarekin **ados agertuz gero**, espedientea zuzendu abalko da, edo espedientea izapidetzea bertan behera utzi abalko da.*

Espedientea zuzenduz gero, espedientea berriaz ere kontu hartzailetza organo berera bideratuko du.

*Arlo kudeatzailea **ados ez badago**, eragozpen txostena emango du. Kasu horretan, eragozpena gehienez bost eguneko epean eman beharke da, eta eragozpen txostenaren kopia igorri beharke da bai kontu hartzailetza organora, bai gastua onartzeko eskumena duen organora (Alkatetza edo osoko bilkura, izapidetzea nori dagokion kontuan hartuta, eragozpen objektuaren arabera eta bertan behera utzi bada edo ez aintzat hartuz). Hala burrengo bi egoerak izango ditugu:*

I.- Osoko bilkuran ebatzi beharreko eragozpenei dagokienez (“aurretiko fiskalizazio mugatuak derrigorrez jaso behar dituen edukiak” epigrafearen A eta B atalak), ebaizpenak halabeharrez egin beharke du aldaketaren bat aurrekontuan gastu hori estaltzeko. Hau da, honako bi kasu hauetan horrela jokatu beharke litzateke:

e) Kreditua nahikoa edo egokia ez delako, edo organoa eskuduna ez delako, sortzen direnean.

f) Eragozpenak osoko bilkurak onartu beharreko obligazioei edo gastuei buruzkoak direnean.

c) Iraungitako kontratuetan oinarritutako fakturak onartzeari dagokio. Kontratuaren babesetik kanpo jasotako lehen fakturaren eragozpena bertan behera uztea Osoko Bilkuraren esku utziko da, eta egoera berberetan edo antzekoetan gertatuko diren hurrengoak ebaiztea Alkatetza/Udalburutzaren esku utziko da. Azken atal horri dagokionez, 2019ko ekitaldian egingo den lehenengo Osoko Bilkuran, aurrekontua betearazteko arau hau dagoeneko indarrean badago, aztergaien zerrendako puntu gisa jasoko da ordura arte iraungitako kontratuen fakturen eragozpena bertan behera uztea eta ondorengoak Alkatetzaren esku uztea. Ingurnabar hori errepikatu egin beharke da udalbatzian aldaketaren bat gertatzen bada, hauteskunde prozesuaren ondoren gertatzen denean bezala.

II.-Alkatetza-udalburutzak ebatzi beharreko eragozpenen izapideei dagokienez, azken horrek egokitzen jotzen dituen txostenak galdegin abalko ditu, horien irizpideen arabera ebaizteko. Hori horrela, Kontu Hartzailetzaren oharrek edo eragozpenek etete-eraginik ez badute, ez zuzioki kudeaketa-organoen iritziei gailenduko, ez eta Alkatetza-udalburutzak finantza-babesean eskudun den kontrol-organoari eska diezazkiokeen txostenei ere. Kontuan izanik obarrak egiten dituzten Kontu-hartzailetzako txosten guztiak kasuan kasuko dekretuari gebitzen zuzioki Alkatetzak hori izenpetu aurretik, eta goiburuan aipatzen direla, ondorio egokiak izan dituzten txostena organo eskudunari emateko izapidea egindakotzat jotzen da.

Jarraian jasotako kontratuen iraungitze data kontuan hartuta, ikusi da kontratuok dagoeneko iraungi egin direla eta, horrenbestez, indarrean dagoen kontratu bati legeak ematen dion babesetik kanpo daudela une honetan.

Horietako batzuen kasuan ez da arloa arautzeko araudiak ezarritakoarekin bat datorren lizitazio prozedurarik izapidetu.

Kontuan hartu behar da enpresek zerbitzuak ematen jarraitzen dutela eta, hortaz, egindako lanei dagokien faktura igortzen dutela. Horren froga da taula honetan jasotako fakturan eta kontzeptuak, espedienteari atxikitakoak.

Oinarritzat hartu da aurkeztutako fakturak ordaintzearen aldeko txostenak egin dituztela arloko arduradunek, zerbitzu horiek egiaz eman direla argudiatuz.

Oinarritzat hartu da ut supra erantsitako zerrendan deskribatutako zerbitzuak eman zituzten enpresek aurkeztutako faktura ordaintzeko proposamenari udaleko Kontu Hartzaitzak 2019ko apirilaren 20an egin zion eragozpen oharra; izan ere, dakarrenez, agortutako kontratuen zerbitzuak jasotzen jarraitzea “ordaintzeko betebeharrak aitortzeko funtsezko betekizun edo izapiderik espedientearen ez agertzea” dakar. Hala ere, era berean jakinarazi zen egikaritutako prestazioa ordaintzen ez bada, toki erakundea bidegabeki aberastuko dela.

Kontuan hartu da Sektore publikoan kontratazioa arautzen duen araudiak ezarritako erregulazioa (urriaren 30eko 30/2007 Legea eta azaroaren 8ko 9/2017 Legea), bai eta Bizkaiko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak ezarritakoa ere, eta Aurrekontua Egikaritzeko Arauak, indarrean dagoen 2019. urterako Aurrekontu Orokorren eranskin gisa onartutakoa.

LEHENENGOA- Udal Kontu hartzaitzak jarraian jasotako fakturak ordaintzeko proposamenari egindako eragozpena bertan behera uztea, Udal Zerbitzu Teknikoek horretarako prestatutako aldeko txostenarekin bat etorri (eta/edo kasuan kasuko faktura sinatuz):

Indarrean dauden kontratuen babesik ez duten kontratuei lotutako fakturen zerrenda _Maiatza '19

	Faktura zk.	Zk. eta erregistro data Kontu-hartzaitza	Hornitzailea	Zenbatekoa (BEZik gabe)	Azalpena	IO/Izapidetze a dagokion arloko arduradunaren txostena
1	033/19	1.698 (2019-04-10)	Bizitzen Fundazioa IFK_G95186896.	2.109,60 € (BEZa salbuetsita)	Zainduz 2019 urtarriletik martxora; psikoestimulazioari buruzko txostena.	BAI
	034/19	1.697 (2019-04-10)		1.760,60 €. (BEZa salbuetsita)	Zainduz 2019 urtarriletik martxora; prestakuntza eta zaintzaren udal zentroa.	
	035/19	1.699 (2019-04-10)		3.793,89 €. (BEZa salbuetsita)	Zainduz 2019 urtarriletik martxora; banakako laguntza psikologikoa eta laguntza psikologikorako taldea.	
2	08/19	2.402 (2019-05-16)	Asociación Bidea Eginez Elkartea IFK_G95743415.	1.478,40 €.	Aholkularitza juridikoko zerbitzua, apirileko hilabeteari dagokiona: atzerritarrak, emakumeak eta familia	BAI
3	2019/301	2.273 (2019-05-08)	Empresa Técnica de Gestión Deportiva S.L. IFK_B48486161.	18.169,11 €.	Torresoloko kirol instalazioak garbitu eta mantentzea, igerilekuak garbitzea, kontrolatzea, sorospena, begiraleak eta sarbideak kontrolatzeko zerbitzua	BAI
4	F-19 F-169-19	1.936 (2019-04-30)	Guedan Servicios Deportivos SA IFK_A48224224.	48.304,80 €.	Udal kirol instalazioen sarbideak kontrolatzea, sorospena eta antolatutako kirol jarduerak garatzeko zerbitzua, apirileko hilabetean zehar.	BAI
	F-19 F-171-19	1.938		5.128,05 €.	2. lotea — Sakoneta kiroldegiko igerilekuetako begiraleen	

		(2019-04-30)			zerbitzuak apirilko hilabetean zehar.	
5	FACTUVENTA FVR_2019-01-31n igorritakoa	2.350 eta 2.374 bitartean 2.378 eta 2.383 bitartean (biak barne) (2019-05-14)	Giroa S.A.U. IFK_A20071429.	16.023,10 €. (32 fakturari dagokien zenbatekoa)	“Udal-eraikinetako aireztapen, berokuntza eta klimatizazio instalazioak mantentzeko zerbitzua” 2019ko lehenengo hiruhilekoari dagokiona.	BAI

SEGUNDO.- 111.685,38 euroko (BEZ barne) kopuru osoaren gastua onartzea.

HIRUGARRENA.- Horrenbestez, aipatutako faktura ordaintzea onartzea, 96.767,55 euroko (BEZik gabe edo salbuetsita) kopuruan.

LAUGARRENA.- Hala badagokio, hornitzaile eta kontzeptu berbera duten ondorengo eragozpen kasuak Alkatetzak ebatziko ditu, 2019ko Aurrekontua Betearazteko Arauan jasotako eskuordetza dela bide.

8.- 2018KO SOINU ATADIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ORDAINSARIEN 0,3KO IGOERAREN AURKAKO BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA:

Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onesteko Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2019ko maiatzaren 27an hartutako 11 zenbakiko irizpenaren proposamena; horren egiaztatzea espedientean jaso da.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak, saioan bertaratutako zinegotzi guztiek **aho batez** hala erabakita, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Zati batean ezestea Soinu Atadia Erakunde Autonomoko langileen ordezkariak aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa, ardurarik gabeko irakasleen eta arloko arduradunen zuzkidura kopuruaren kalkuluan antzemandako ustezko akatsari dagokiona, egiaztatu baita bi kategorien zuzkidura kopurua bat datorrela indarreko lanpostuen zerrendarekin.

BIGARRENA.- Zati batean onestea Soinu Atadia Erakunde Autonomoko langileen ordezkariak aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa, administrari laguntzailearen zuzkiduren kopuruan antzemandako ustezko akatsari dagokiona, izan ere, lanaldi osokoa dela jaso da, baina indarreko lanpostuen zerrendaren arabera, 30.1 kodedun lanpostuak lanaldi partziala (% 50) du aurreikusita, horrenbestez, II. eranskinari egokitu beharko litzaioke, honela geratuko litzatekeena:

II. ERANSKINA SOINU ATADIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN IGOERAK

<i>POSTUAREN IZENA</i>	<i>AURREKONTU BALIOA</i>	<i>AURREKONTU BALIOA X ZUZKIDURA</i>
<i>KONTSERBATORIOA</i>		
<i>ZUZENDARIA</i>	<i>219,14 €.</i>	<i>222,01 €.</i>
<i>ARLOKO ARDURADUNA (6)</i>	<i>130,98 €.</i>	<i>796,18 €.</i>
<i>IRAKASLEA (26,8)</i>	<i>120,27 €.</i>	<i>3.265,61 €.</i>
<i>KUDEAKETA ADMINISTRARIA</i>	<i>120,27 €.</i>	<i>121,85 €.</i>
<i>ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA 0,5</i>	<i>120,27 €.</i>	<i>60,93 €.</i>
<i>ATEZAINA (1,60)</i>	<i>111,46 €.</i>	<i>180,67 €.</i>
<i>GUZTIRA</i>		<i>4.647,25 €.</i>

HIRUGARRENA.- Ebazpen honi zuzenbidez dagokion publikitate ematea, eta Erakunde Autonomoetako Gobernu Organoei edukiaren berri ematea, kasuan kasuko lege ondorioak izan ditzan. “

9.- 2018 EKITALDIKO KONTU OROKORRA:

Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onesteko Kontuen Batzorde Bereziak 2019ko apirilaren 9an hartutako 30 zenbakiko irizpenaren proposamena; horren egiaztatzea espedientean jaso da.

Ikusi da 2018. urteari dagokion Kontu Orokorra, alkate andreak aurkeztutakoa, eta honako hauek osatzen dutena:

- A) Udalaren Kontu Orokorra.
- B) Euskaltegiaren Kontu Orokorra.
- C) Euskaltegiaren Kontu Orokorra.
- D) Kontu finkatua.

Kontu bakoitzak honako atal hauek ditu:

1. Balantzea
2. Emaiza ekonomiko eta ondare emaitzaren kontua.
3. Aldaketen egoera ondare garbian.
4. Eskudiruen fluxuen egoera.
5. Aurrekontuaren likidazio egoera.
6. Memoria.
7. Ekitaldi amaieran kutxan dauden izakinen kontaketa aktak.
8. Banketxe bakoitzaren ohar edo ziurtagiriak, bertan dagoen saldoari dagokionez, toki erakundearen eta erakunde autonomoen alde.
9. Aurrekontu eta kontabilitate emaitzen kontziliazio egoera.

Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezarri zuen uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuko 47. arauak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen

aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. artikulua aipatu dute Udaltzaren presidentek osatutako Kontu Nagusia Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honen irizpean jarriko dela eta, ondoren, jendaurrean jarri behar dela 15 eguneko epean; tarte horretan interesdunek erreklamazioak, eragozpenak edo oharak plazaratu ahalko dituzte, eta, hala gertatuz gero, Batzorde Berezi honek aztertuko ditu, kontua Udaltzara eraman baino lehen, uztailearen 31 baino lehen.

Ikusi da Udaltzaren Kontu hartzaitzak emandako txostena, kontuen edukiari dagokionez.

Ikusi da 2018ko Kontu Orokorra 15 eguneko jendaurrean jarri dela, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2019ko uztailearen 24an iragarkia argitaratuz; ez da erreklamazio edo ekarpenik aurkeztu, eta, hortaz, epea 2019ko maiatzaren 16an bukatu da.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozkatu egin da, eta aldeko hamaika botorekin, saiora bertaratu diren Euzko Abertzaleak taldearen zortzi zinegotzienak eta Euskal Sozialisten hiru zinegotzienak, eta zortzi abstentzioekin, saiora bertaratu diren Euzko Abertzaleak taldeko hiru zinegotzienak, EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Leioako Talde Popularraren bi zinegotzienak, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezarri zuen uztailearen 28ko 139/2015 Foru Dekretuko 51. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. artikuluan ezarritakoa dela bide, 2018ko Kontu Orokorra onartzea **ERABAKI DA**, Kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin.

Euzko Abertzaleak Taldeko M^a del Carmen Urbieto González Alkatearen esku hartzea

Bueno, damos por finalizado el Pleno, pero antes quería, bueno, ya sabemos todas y todos que falleció José Ignacio Sarria, que ha sido una figura importantísima en nuestro pueblo y en este Ayuntamiento, el *alma mater*, como siempre hemos dicho, del Conservatorio y de la Escuela de Música, y me gustaría que su labor, su trabajo fuera reconocido por el Pleno y que le hagamos llegar a su familia ese cariño que todos y todas le teníamos y ese reconocimiento por tanto trabajo y tanto bien. Yo creo que nuestro pueblo es líder entre muchos pueblos respecto a la cultura musical y en la generación y mantenimiento de tantos coros, y tan buenos, y de un Conservatorio del que nos sentimos muy orgullosos y orgullosos que supone un emblema para nuestro municipio. Por tanto, hacemos llegar a su familia nuestro cariño y nuestro reconocimiento a José Ignacio Sarria. Sin más, muchas gracias a todos.

Eta arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean, jarduneko Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritzak honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkari nagusia naizen honek.

OE
JARDUNEKO ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA